



Etxarri Aranazko Udala
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
udala@etxarriaranatz.eus
www.etxarriaranatz.eus
Tef. 948460004

JENDARTE ETA KULTURA EGOERA AHULEAN DAUDEN IKASLEEK ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN PARTE-HARTZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA 2016-2017 ikasturtea

Etxarri Aranazko Udalak diru-laguntza emanen die herriko ikastetxeei jendarte eta kultura egoera ahulean dauden ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko, beti ere, jarraiturik honako

OINARRIAK

1. Oinarrien xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da ikastetxeei jendarte eta kultura egoera ahulean dauden ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan parte-hartzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Diru-laguntza deialdia helburu batekin sortu da: jendarte eta kultura egoera ahulean dauden ikasleak herrian integratzea, Etxarrin antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretan parte hartuz.

2. Diru-laguntzaren gaiak eta kontzeptuak

Diruz lagunduko da 2016-2017 ikasturteko eskolaz kanpoko jardueren kostua, eta udako jarduerak, 2017ko uztailatik abuztura bitartekoak. Ekipamendua ez da diruz lagunduko.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Xede hauetarako, Etxarri Aranazko Udalaren 2016ko ekitaldiko aurrekontuetako 4510 48205 partidari jasotako kredituaren kontura, “behar bereziak duten ikasleei diru laguntza” izenekoa. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izanen du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak.

Aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean zatituko da, beti ere gain-finantzaketarik gabe.

Ikasle bakoitzagatik eta garai bakoitzagatik (uda edo negua) eskolaz kanpoko jarduerarako laguntza eskatu ahal da, eta gehienez ere eskaera bakoitzeko 200 euro.

4. Deialdiaren publizitatea

Iragarkia Etxarri Aranazko Udalaren iragarki oholean jarriko da. Gainera, jakinarazpena bidaliko zaie diru-laguntzaren hartzaile diren balizko onuradunei, hau da, Etxarri Aranazko bi ikastetxeei eta kanpokoei beti ere etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak jakinarazi badu Etxarri Aranazko enpadronatutako ikasleak dauden herrian eredu hori ez badagoelako.

5. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Diru-laguntza deialdia Etxarri Aranazko ikastetxeendako da edo Etxarrin ez dagoen beste eredu baten ikasteetxea. Diru-laguntza eskaera egin dezakete, baldintza hauek betetzen dituzten ikasleendako:

- a) Etxarri Aranatzen erroldatua egotea.
- b) LHko edo DBHko ikaslea izatea.
- c) Jendarte eta kultura egoera ahulean egotea edo (ikastetxearen eta OGZren txostenarekin ziurtatu beharko da).
- d) Ezaugarri hauek betetzen dituen eskolaz kanpoko jarduera batean izena ematea (jardueraren antolatzaileak ziurtatuko du, eskabidean dagokion atala betez):
 - I. Jardueraren antolatzailea: Etxarri Aranazko kirol talde edo elkarteak. Herrian eskaintzen ez bada ikasleak behar duen jarduera baldintza hau ez dira kontuan hartuko.
 - II. Jardueraren ezaugarriak: Talde dinamika izatea
 - III. Jardueraren iraupena:
 - Neguko garaikoak: Ikasturte osoa edo gutxienez 4 hilabete
 - Udako garaikoak: Ikasturte osoa edo gutxienez aste bat

Diruz lagundutako jardueran parte hartu dutela frogatzea (gutxienez % 80ko asistentzia). Justifikatutako huts egiteak (gaixotasunagatik, bizitoki aldaketagatik...) ez dira kontuan hartuko.

6. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko bi epe izango dira:

- 2016/2017 Neguko jarduerak: deialdia udaleko iragarki oholean argitaratzen denetik 2016ko azaroaren 30era arte. Epe hori luzaezina izanen da.
- 2017ko udako jarduetarako: 2017ko ekainaren 1etik 25era arte. Epe hori luzaezina izanen da.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Etxarri Aranazko Udaleko erregistroan eskabideak aurkezteko epearen barruan:

- a) Eskabide ofiziala beteta (I eranskina)
- b) Jendarte eta kultura egoera ahulean dauden ikasleen txostena. Gutxienez informazio hau izanen du:
 - a) Ikasleen datuak (ikasle bakoitzeko fitxa bat, II. eranskina eredu hartuta).
 - b) OGZaren txostena, ikasleak jendarte eta kultura egoera ahulean daudela ziurtatuz.
 - c) Ikaslearen edo legez ordezkatzan duen aita/ama/tutorearen baimena eta konpromisoa (III. eranskinean)
 - d) Eskolaz kanpoko jardueraren ezaugarrien deskribapena, jardueraren antolatzaileak sinatuta (ikasle bakoitzeko fitxa bat, III. eranskina eredu hartuta).
- c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea diru-laguntza eskatzen duten egunean.) Zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzako ordainketak eguneratuak dituela ziurtatzen dituzten egiaztagiriak. Eskatzaileak sinatutako zinpeko aitorten batez ordezkatzeari onartuko da (I. eranskinean), betiere diru laguntza jaso aurretik dokumentuak aurkeztu beharko dira

Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 2ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izanen da. Hona helbidea:

Etxarri Aranazko Udala

Nagusia 10

31820 Etxarri Aranatz

Telefona: 948 460 004

Faxa: 948 460 586

e-posta: udala@etxarriaranatz.com

8. Dokumentazioaren berrikuspena eta akatsen zuzenketa.

Kultura arloko udal zerbitzuak eskabidea eta oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa aztertuta akatsik atzematen badu edo dokumentazioa falta bada, hala jakinaraziko zaio eskatzaileari eta hamar egun balioduneko epea emanen zaio, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, okerrak zuzen ditzan. Epea iragan eta horrela egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, aitzinetik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan xedatuarekin bat.

9. Ebazpena

Diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Etxarri Aranazko alkateak emanen du, horretarako sortuko den batzordearen proposamena ikusita. Batzordea hauek osatuko dute: Alkatea, euskara zinegotzia, idazkaria, kultur teknikari eta kontu hartzailea. Batzordeak aholkularitza eskatu dezake. Ebazpen hori eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emanen da. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

10. Diru laguntzaren justifikazioa

Ikasturte bukaeretan ikastetxeek honako datak hauetan jendarte eta kultura egoera ahulean dauden ikasleen eskolaz kanpoko jardueraren memoria eta gutxienez informazio hau izanen du:

DATAK

-2016-2017ko neguko garaiko jarduetarako: 2017ko ekainaren 30era arte

-2017ko udako jarduetarako: 2017ko azaroaren 30era arte

DOKUMENTAZIOA

a) Ikastetxearen balorazioa.

b) Matrikularen ordainagiria.

c) Eskolaz kanpoko jardueraren antolatzailearen balorazioa eta asistentzia ziurtagiria (ikasle bakoitzeko fitxa bat, IV. eranskina eredu hartuta).

11.- .Onuradunen betebeharrak

11.1. Elkartean onuradunek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Proiektuaren garapenean gertatzen den eta haren aldaketa ekar dezakeen edozein gora-beheraren berri emanen zaio Udaleko Kultura zerbitzuari, gertatzen den momentuan. Proiektuan edozein aldaketa egiteko Kultura zerbitzuaren adostasuna beharko da jarudera burutu baino lehen.

b) Ikaslearen jarraipena: jarrera, asistentzia, integrazioa eta abar.

c) Diru-laguntza hori erabiliko da soil-soilik deialdi honetan diruz lagundutako jardueren egitaraua gauzatzeko.

d) Lagundutako jarduera finantzatzeko lortutako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerera edo baliabideen berri ematea Udaleko Kultura zerbitzuari. Jakin bezain laster emanen da haien berri eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

11.2. Ekitaldi ekonomiko zehatz baten kontura diru-laguntza bat jasotzeak ez dakar inolako eskubiderik, hurrengo urteetan diru-laguntzak jasotzeko.

11.3.-Diru-laguntza emanda, onartutzat joko da, espresuki uko egiten ez zaio. Bertzenaz, ulertuko da onartu dela emandako zenbatekoa eta eskatzaileak konpromisoa hartuko du proiektatutako jarduera gauzatzeko.

12. Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren. Banku transferentzia eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zerbakian.

13. Diru-laguntzen itzulketa

Onuradunek diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunei egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

14. Arau-hauste eta zehapenak

1. Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, diru laguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, diru laguntzaren galera ekarriko du, eta jaso diren zenbatekoak itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin edo beretsuarekin gero beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.

2. Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat ez betetzeak diru-laguntza deusezteka ekarriko du.

15. Datuen babesa.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, jakinazten dizugu deialdia hau dela eta biltzen diren datu pertsonalak Etxarri Aranazko Udalaren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean sartu ahalko direla

(Kale Nagusia 10, 31.820 Etxarri Aranatz). Era berean, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien kontra agertzeko, Udalaren Erregistro Orokorrera joz horretarako (Kale Nagusia 10, 31.820 Etxarri Aranatz).

16. Auzibidea

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

17. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka, oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka errekurtso hauek aurkeztu ahalko dira:

- a) Berraztertzeke errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aurrera.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzenduta, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da.

Etxarri Aranatz, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeitabatean

Alkatea

Eneka Maiz Ulaiar